

Elorrio'tik, 1970, Orrillak 19.

Lafitte'tar Pierre apaiz agurgarriari.
USTARITZ'era.

Agur, jaun agurgarri ta adiskide: Len bere ba-nekian zuk IZTEGI andi bat atonduta zeukala, baita, berori argitaratzeko, Berrondo abadeari eskiñita zeukala bere.

Begira, jauna: orrelako lan ederra egin dozun ezker, zelan itziko dozu argitaratzeke? Mitxelena'ren IZTEGIA oraindiño gordin ei'dago, lengoan Donostia'n esan eustenez. Eta arena argitaratu arte itxarongo ete-dozu? Ez, iñola bere ez, gero zurea iñok bere ez dau ^{or} argitaratu nai izango-ta. Ez egin orrelakorik; zure lan bikaiña argitaratu egin bear da, eta ainbat lasterren argitaratu bere. Ba-dakit argitaratū nai dautsun norbait; bere gain atarako leuke, zuri orrenbesteko bat ordaindurik. Beraz, etorri zakidaz ona egun batez; ekarri egidazu IZTEGI ori, eta biok joango gara --nai ba'dozu-- Bilbo'ra, argitaratzailleagana, berarekin itz egitera. Argitaratzeko gai da zure lana, jauna. Ez itzi geroko, betiko galdu ez dadin! Oraintxe edo iñoiz bere ez!

Zure barrien zain, edo --obeto esan-- zeure ~~zai~~ ta IZTEGIAren zain,

Kerexeta' ta Jaume

K Jaime de Kerexeta. (Pbro.)
San Roque, 16.
ELORRIO (Bizkaia).

Elorrio`tik, 1970, Abenduak 18.

Rvdo. Pizres Lafitte/ jaunari.
USTARITZ^oera.

Nire jaun agurgarri orri, agur: Retana jaunaren izenean idazten dautsut.
Lenen, gabon zoriontsuak opa dautsudaz, Jesus Umearen onespenez.

2) Onezkero, onik jarriko zintzazala uste dogu eta opa dautsugu biotzez.

3)-Egin al dozu zure Iztegirako ITZAURREA?

4) Baiona`ko "Sociedad de Ciencias, Letras, Artes y Estudios Regionalistas" `ko Buruari, Colas`en "Le Tombe Basque" argitaratzeko baimena eskatu eutsan Retana jaunak; baiña ez dautso oraindagiño erantzun. Ikusi al izango zeuke zuk, eta itz egin arekin orretzaz?

5) Bialdu al dautsu Mitxelena jaunak bere "Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue" liburua? Bialdu ez ba`dautsu, esan egidazu, bialdu dagitsudan.

Eta besterik ez. Erantzunaren zain gelditzen nakizu.


Zure serbitzari, adiskide eta Kristo`gan anai,

Jaine de Querexeta. (Pbro.)
San Roque, 16.
ELORRIO. (Bizkaia)

Sanan gipurkerazko bere
"Salundia".

Jaime de Querejeta

(PRESBITERO)



Tel. 22

ELORRIO (Vizcaya)

Agur, Lafitte jama: Berandu-
to ~~la~~ izanaren be, emen
dozu igarko udan argitaratu
neban Saluntegia. Luis Plomo
Schökel'en "Salmos" liburuak
dago itzulita, eta neuretik
Zuzartzi afaizak argitaratu